

## ZENBAT BURU

Maite Vallejo

## ERREPORTAJEA

Telefono mugikorrak

## UDALETXETIK

Altzolako tren geltokiaren berrikuntzak

## BERBETAN

Juan Gabilondo, mundu zabalean ibilitako gizona

## KIROLA

119 korrikalarik hartu zuten parte Elgoibarko 7. Duatloian

## KULTURA

Marta Carrascoren dantza ikuskizuna maiatzaren 7an

# BARREN

1999ko apirilaren 30a  
VII. urtea - 276. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



## Telefono mugikorrak: Beharra ala moda?

“Telefonoak gaez hots eginez gero, beltz dator berria” Errusiar esaera

# 35 ORDUKO LANASTEA, LAN GEHIAGO eta HOBEA



Donostian, eguerdiko 11:30ean Alderdi Ederren.  
Bilbon, eguerdiko 11:30ean Jesusen Bihotza enparantzan.  
Gasteizen, eguerdiko 12:00etan Andre Mari Zuriaren plazan.



# 35 ORDUKO LANASTEA eta SOLDATA SOZIALA

Iruñean, eguerdiko 12:00etan Golden zine aretoaren aurrean.

**LAB**

ELA · ESK · STEE-EILAS · EHNE · HIRU



MAITE VALLEJO

## Naturaren jakituria

Zenbat aldiz etortzen zaizkidan burura horrelako hainbat galdera, naturari begira aurrezaurre jartzen naizenean: ematen al diogu gure inguruari daukan balioa? Ba al dakigu naturak eskaintzen dizkigun aberastasunak ondo aprobetxatzen? Naturaren jakituriaren aurrean, ba al dugu ikasteko jarrerarik? Gure bizimodua naturarekin guztiz lotuta dago. Hainbeste gauza dira bertatik jasotzen ditugunak...

Nik, egia esan, gaztetatik eduki izan dut naturarenganako liluragarritasun hori. Beti hartu izan ditut naturak emandako gauzak erregaluak balira bezala, eta baita horrela eskertu ere horren guztiaren sortzaileari. Gaztetatik izan dut naturak osasunerako eskaintzen dituen hainbeste sendabelarren berri: berbenek zenbait gaitz sendatzeko duten indarra, 'lanten' deitzen den belarrarena eta beste askorena ere bai, eta ez entzunez bakarrik, erabili ere egin izan ditut-eta.

Naturako hainbat gaik sendatzeko duen ahalmen horri buruz orain dela gutxi eskuetara etorri zitzaidan informazio baten berri eman nahi nizuke. Ba omen da Belen hiriko seminarioan irakasle dagoen frantziskotar brasildar bat. Honen ospea ezagutzen hasi omen da era errazean minbizia prebenitzen eta sendatzen duelako. Ez da, ez medikua, ezta sasi medikua edo traumaturoa ere. Begi argiak, irripar erraza eta harreman goxoa duen fraile honi, ea berak minbizia sendatzen duela egia den galdetzean, hauxe erantzuten omen du: nik senda dezaket, zuk ere bai eta nahi duen edonork senda dezake. Miraririk egin gabe, naturak sortzen dituen hainbat elementu ondo konbinatuz eta aplikatuz bakarrik. Eta bi aldiz eskatu gabe, bere errezeta luzatzen du: kilo erdi erle ezti garbi-garbia, "aloe vera" deitzen den landarearen bi orri handi edo hiru txiki, eta hiru koilarakada koñak, whisky, tekila

edo aguardiente. Aloe landareari hautsa eta arantzak kendu ondoren, zatitu eta gai guztiak bati-dora batekin nahasten dira. Pasta lodi bat egin arte itxaron eta prest dago minbizia sendatzeko erremedioa. Egunean hiru aldiz, jatorduak baino ordu laurden lehenago, koilarakada handi bat hartzea komeni da. Hamar egunean hartu. Fray Romanok dioenez, edaria hartu baino lehen, ondo astindu, eta ordu batzuk baraurik egon ondoren hartzea da garrantzitsua. Gorputzeko pepsinak lanean hasteko irrikitan egoten dira eta sendagaia gorputzeko ehun guztietara errazago iristen da. Bere hitzetan, "edari honek gorputz guztia garbitzen du eztiaren eraginez, elikagai hau organo guztietara iristen baita; aloe landareak zauriak isteko ahalmen ikaragarria du eta alkoholak odol hodiak zabaldu egiten ditu." Era honetan odola hamar egunetan poliki-poliki garbi gelditzen da.

Fray Romanok adierazten duenez, edari hori hartu ondoren, azalean marka batzuk agertzen badira, odola garbitzen hasi den seinalea da eta komunera joateko beharra gehitzea ere normala omen da. Lehenengo tratamenduan ezer igarriko ez balitz, bigarren, hirugarren edo laugarren dosi bat hartu behar den aztertu behar da, guztiz sendatu arte.

Sei urte daramatza frantziskotar honek errezeta hau erabiltzen emaitza baikorrekin. Hainbat eta hainbat pertsona sendatu omen ditu. Era guztietako minbiziaz sendatzeko eta baita aurrez ekiditeko ere balio duela esaten du. Bere formula jakinarazteko eragozpenik ba al duen galdetzen zaionean, irribarrez erantzuten du, bere errezeta emateagatik ez duela ezer kobratzen. Berak dioenez ez omen dago pertsona baten bizitza luzatzeak eta on egiteak sortzen duen poztasuna eta satisfazioa baino ordainsari hoberik.

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzeko dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzeko du.

## Barrak, Birrak eta Barreak



©KOKOE 99 ■ 54





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

#### ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

#### LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

KAZETARIAK Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea

#### PUBLIZITATEA

Maitane Cid

#### MAKETATZAILEA

Bea Ansoa

#### ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

#### GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

#### KOLABORATZAILEAK

Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,

Aitzol Arriola, Martin Dominguez,

Jon Eugi, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,

Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen,

Iban Urizar, Amaia Urzelai,

Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

#### BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

#### INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

#### TIRADA

4.000 ale

#### LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

#### ISSN

1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.*



## Non erreko dugu?

Azken aldian, erretzearen kontrako Azenbait erabaki ezagutzera eman dituzte komunikabideek. Hasi, zine aretoetan, osasun zentroetan eta horrelako lekuetan erretzea debekatzen hasi ziren. Erretzailea naiz eta ados nago horrelako neurriak hartzearekin. Nire ustez, leku publikoetan ez litzateke erre behar. Orain egun gutxi, erretzaileen kontrako beste neurri baten berri eman digute komunikabideek. Ez trenetan, ez autobusetan, ezta hegazkinetan ere ezingo da erre. Gerraio publikoetan jarri duten debekua egokia dela deritzot arrazoi simple batetik: leku itxi batean 20 lagun badaude eta 10 erretzaileak badira, pentsa zer nolako kea sortuko litzatekeen. Hau dena ondo dago. Baina nire galdera hau da: non demontre erre ahal izango dugu aurrerantzean erretzaileok, non? Errespetu kontua dela uste dut, erretzen ez dutenekiko errespetua, baina erretzaileak direnekiko kontsiderazioa ere bai.

Arauek eta legeak egiten dituzten artean erretzaileak ere egongo direla pentsatzen dut. Ez erretzaileak ere bai, noski. Argi dagoena da denon gustuko eta neurriko gizarte justua eraiki nahi badugu, guztion eskubideak errespetatu beharko direla.

Azkena ere jakingo duzuela pentsatzen dut. Espainiako telebista kate batek eman zuen notiziaren arabera, OMSeko arduradunak tabakoa erreze-tarekin eta farmazietan eskuratzea proposatu du. Erretzaileak gaixoak bailiran kontsideratu beharko litzateke bere ustez. Besterik ez genuen behar.

Erretzearen kontrako neurriak hartzea ondo dago, baina ez gaitzabela sartzatu. Badirudi erretzaileak gaitz larriren batekin kutsatutako pertsonak garela. Estatu Batuetan, esaterako, kalean erretzea oso gaizki ikusita dago. Ez nuke horrelakorik Euskal Herrian gertatzerik nahi. Ea ba, denon artean konponbide batera iristen garen.

L.B.

BARENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.

## GALDERAK

◆ **Liburutegira sartzeko igogailurik jartzeko asmorik ba al dagoen galdetu digu emakume bateg.** “Zaharren Biltokira joateko dagoen igogailua aprobetxatuz ez litzateke gehiegi eskatzea izango, igogailua jartzeko lekua badago-eta. **Orain dagoen moduan ezinduentzat edo arazo fisikoak dituzten pertsonentzat oso zaila da Liburutegira joatea.** Belaunetako arazoak

izan ditut azken aldian eta ezin izan dut Liburutegia erabili. Antzerako beste kasu batzuk ere ezagutzen ditut”.

Udaletik adierazi digutenez, **“momentuz ez dago igogailurik jartzeko asmorik edo proiekturik”**”.

## KEXAK



◆ **Herritar batek deitu digu honako kexa hau azaltzeko:** “Autobus geltoki batzuetan ordutegien berri ematen duten taula informatiboak falta dira. **King Kongeko eta Txankakua zubiaren ondoko geltokietan adibidez, ordutegiak jartzeko euskarriak daude** (argazkian agertzen dena), **baina alper alperrik daude, ez baitute daukaten funtzioa betetzen**”.

## BAI, ESAN?



**Kontxi  
Martinez**

ELAko ordezkaria

**Bihar, maiatzak 1, Langileen Nazioarteko Eguna da. Sindikatuek egun seinatu haur erabiltzen dute beraien eskariak azaltzeko eta errebindikatzeko. Hori dela-eta, Elgoibarko ELA sindikatuaren bulegoan lan egiten duen Kontxi Martinezen-gana jo dugu egun honetarako prestatu dutenaren berri izateko.**

**- Zein da aurten maiatzaren 1erako sindikatuaren errebindikazioa?** - 35 orduko lanastea eta soldata soziala eskatuko ditugu, baita hainbeste ordu estra ez egiteko ere. Jende asko dago lanik gabe eta gure ustez lana banatu egin beharko litzateke. Bestalde, lanposturik ez dutenek edo lan merkatuan sartu ez direnek gutxieneko soldata interprofesionala izan dezaten nahi dugu. Maiatzaren 21ean hauek guztiak eskatzeko greba egiteko asmoa daukagu.

**- Jendea prest al dago 35 orduko lanastea onartzeko?** - Bai. Batzuei ordu estrak ez egitea ez zaie ongi iruditzen, baina orhar, egindako eskariak ikusita, gehiengo handi batek onartuko du. Gainera, ez da langileentzat soilik egindako greba, seme-alabak dauzkatenek etorkizunean lana izan dezaten edo lanik aurkitu ezean, gutxieneko soldata eduki dezaten nahi dute. Probatuta dago, salario minimoa ematen duten herrialdeetan langabezia tasa txikiagoa dela, gobernuak defizitik izan ez dezan langabetuentzako lanpostuak sortzen saiatzen direlako.

**- 35 orduko lanastea langabeziari aurre egiteko irtenbidea al da?** - Bai. Horregatik konbokatu dugu greba eskari honekin. Emaitzarik izango ez duela uste bagenu, ez genuke grebarik deituko. Baina errebindikazio hau ez da greba hutsean amaitzen, 35 orduko lanastea lortu artean borrokan jarraituko dugu. Gainera, konprobatuta dago 35 orduko lanastearen bidez langabeziak behera egiten duela.

**- Eskatuko al dute inoiz sindikatuek etxeoandreek soldata kobratzea?** - Etxekoandreek INEMeko bulegoetan izena eman dezakete, eta hori egiten duten unetik langabetuak direla kontsideratzen da. Gure asmoa lanik gabe dauden guztiak gutxieneko soldata interprofesionala izatea da, bai gizonezkoek eta baita emakumeek ere. Bileretan hitz egin dugu gai horri buruz baina oraingoz soldata sozialarena eskaria baino ez da.



**RAIKS**  
KAFETEGIA  
943 74 42 65

**Cordon, Vilarchao, c.b.**  
**DEKORAZIOA**

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,  
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,  
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behe. Tel: 943 74 28 74 - 74 05 70



# Telefono mugikorrak,

**Telefono mugikorrak 70. hamarkadan sortu zirenean, 5 edo 6 kiloko luxuzko produktu oso garestiak ziren. Gaur egun, ordea, poltsikoan eraman daitezke eta prezioak izugarri merketu dira. Bilakaera ikusgarri honen ondorioz, edonon ikus daitezke telefono mugikorrak, ia 6 milioi espainiarrek dute era honetako telefonoren bat eta kopurua igoz doa. Baina aurrerakuntza teknologikoa baino gehiago da. Telefono mugikor bat izateak esanahi berezia izan dezake egungo gizartean, horren adierazlea da Metroan gertatutakoa: emakume batek bihotzekoa izan zuen eta telefono mugikorra zuen mutil bati ambulantiari deitzeko eskatu zioten, baina mutilak ezin izan zuen eskatutakoa bete, telefonoa gezurretakoa baitzen.**


Roberto Vinacua Eibartel enpresako arduradunak telefono mugikorraren munduaren nondik norakoak azaldu dizkigu. Honakoak dira aipagarrienak: telefono mugikorre dagokienez, bi sistema daude, zaharrena Moviline deritzona da. Duela 15 urtetik dago martxan eta sistema analogikoa erabiltzen du. Legearen arabera 2.007 urtean desagertuko dira telefono analogikoak. Bestalde, MoviStar edo GSM sistema dago, digitala da eta 4 urte daramatza merkatuan. Salitzen diren 10 telefono mugikorretatik 9 MoviStar activa erakoak dira. Kontraturik ez dute behar eta telefonoarekin diru gehiegirik gastatu nahi ez dutenentzat dira egokiak. Activa telefonoak erosten dituztenek ez dute telefonoa derigorrez behar, erabilgarriak edo praktikoak izan daitezkeelako erosten dituzte, oporretara joateko, autoan eramateko...

## Poltsiko quztientzako prezioak

Telefono konpainien konpetentzia dela-eta, prezioak eta aukerak anitzak dira. Besteak beste, ingurukoei edo familiakoei deituz gero, edo ordu batzuetatik aurrera deiak eginez, merkeagoa da telefono mugikorrekin deitzea. Prezioak izugarri merketu dira, duela urte batzuk, agintari, enpresari edo garraiolarietarako erabiltzen zituzten eta oso garestiak ziren. Gaur egun, berriz, 20.000 pezetaren truke activa erako telefono mugikorra eskura daiteke, telefono aparailua eta deiak egiteko 10.000 pezetako txartela barne. Adituen iritziz, prezioen merketzeak telefono mugikorraren ugaltzea ekarriko du eta 2.002 urterako ohizko telefonorak baino gehiago izatea espero dute. Telefono mugikorraren tamainuak ere badu zeresanik, zenbat eta txikiagoa izan, garestiagoa da.

**Lanerako beharrezkoa.** Roberto Alonso 26 urteko gazte elgoibartarra lanbidez garraiolaria da eta batetik bestera kamioiarekin ibiltzera behartuta dagoenez, duela 4 urte telefono mugikorra erostea erabaki zuen. "Telefono mugikorrik ez nuenean denbora asko galtzen nuen alperrik telefono deiak zirela-eta. Kamioia gelditu eta kabina batetik edo tabernaren batetik deitzen

**"Kamioitik mugitu gabe jaso ditzaket mezuak eta nirea bezalako lanetarako izugarritzko abantaila da"**



**Roberto Alonsok lanerako behar zuelako erosi zuen telefono mugikorra.**

nuen edo etxera joan beharra izaten nuen erantzungailuan nituen mezuak eta enkarguak entzuteko. Orain, aldiz, kamioitik mugitu gabe jaso ditzaket mezuak eta nirea bezalako lanetarako izugarritzko abantaila da hori. Telefono mugikorraren erabilgarritasuna zalantza ezin da zalantzan jarri, zenbait arlotan hobetu daitekeen arren. Adibidez, %97ko hedadura edo 'kobertura' dutela diote, baina behin baino gehiagotan gelditu naiz hitz egin ezinik. Dena dela, azken hiru urteotan asko hobetu dira". Robertok kontratu iraunkorreko telefono digitala du, "sarritan erabiltzen dudanez enpresarietarako bereziki atera zuten kontratua egin nuen. Baldintza bakarra 3 telefono zenbaki batera kontratatzea zen, 2.500 pezeta inguru

# beharra ala moda?

ordaintzen ditut gutxienez, eta hortik aurrera telefonoaren erabileraren arabera. Etxeko telefono normal bat bezalakoa da, baina pasoa merkeago ateratzen zaizkit". Robertoren iritziz, telefono mugikorra lantresna bat da eta asteburuan itzali egiten du, telefono mugikorraren esklabu bihurtzeko arriskua dagoela uste baitu, "niri ez zait telefonoa edozein tokitara eramatea gustatzen. Benetan bitxia da telefonoak erabiltzerakoan zenbait jendeke dituen ohiturak ikustea, inguruan zenbat eta jende gehiago izan erosoago sentitzen direla ematen baitu. Harrokeriaz eta handi-itxurak egitearren jokatzeko dutela uste dut".

**Etxean telefonorik ez.** Gabonetan MoviStar telefono mugikor bat erregalatu zioten Antonio Prieto 34 urteko elgoibartarrari. Etxean ez zuen telefonorik eta hasieratik oso aparailu praktikoa izan zitekeela iruditu zitzaion, "autoan noanean edo nonbaitera irteten naizenean erabiltzen dut. Ez daukat telefono mugikorra edukitzeko behar gorrikerik, baina zenbait egoeratan asko laguntzen du. Aste Santuan adibidez, Mendarora irteera bat egin genuen familiarekin eguna pasatzeko, baina edariak ahaztu zitzaizkigun. Inguruan telefonorik ez zegoenez, telefono mugikorrarekin neska-lagunaren anaiari deitu genion eta anaiak segituan ekarri zitzaizkigun freskagarriak. Mendian zeudela

**"Leku itxietan  
telefonoa deskonektatzen  
saiatzen naiz"**

kotxea izorratu zitzaian lagun batzuk ere ezagutzen ditut eta telefono mugikorrari esker eskatu zuten laguntza. Horrelako gazetarako oso baliagarria da telefono



**Antonio Prietoren ustez,  
telefono mugikorra oso  
lagungarria izan daitezke.**

bat soinean eramatea. Alde txarrik edo deserosorik ere badu, espero ez duzun une eta lekuetara deitzen badizute esaterako. Zorionez, ez zait inoiz gertatu, jendea dagoen leku itxietan deskonektatzen saiatzen naiz-eta". Telefono mugikor bat erabiltzea garestiegia suerta ez dadin, behar denean bakarrik erabili behar dela uste du Antoniok, "erabiltzen jakin behar da, deiak neurritz egin behar dira eta hori esperientziarekin lortzen da. Dena dela, zenbat diru gastatu duzun esaten dizun telefono zenbaki bat badago eta laguntza handia eskaintzen du. 5.000 pezetaren balioa duen txartel baten bidez funtzionatzen du nire telefonoak eta gutxi gorabehera hilean behin aldatzen dut txartela. Gainera, arratsaldeko lauretatik aurrera deituz gero, minutu bakoitzeko 25 pezetako beharapena egiten didaten txartela aukeratu nuen, goizeetan ez baitut ia telefonorik erabiltzen. Bestalde, telefono kabina bat ondoan eduki arren, telefono mugikorra erabiltzen ikusi izan dut jendea eta horrelako gauzekin ibili behar da tentuz, dirua alperrik xahutzea baita".

## Osasunarentzat kaltegarriak ote dira?

**T**elefono mugikorrak garuneko tumore edo kantzerraren sortzaileak izan daitezkeela dioten pertsona asko izan dira telefonoen erabilera gizarte osora zabaldu zenetik. Telefono zelularrek emititzen duten radioak omen du errua. Estatu Batuetan adibidez, buruko tumore bat zela-eta hil zen emakume baten familiak, telefono konpainia salatu zuen, baina salaketak ez zuen aurrera egin. Dena dela, eztabaidak hor jarraitzen du eta Osasunaren Munduko Erakundeak (OMS) ikerketa bat hasi du telefono mugikorraren erabilera eta kantzerraren artean erlaziorik ba ote dagoen argitzeko. Jose Girbau Ortega Berdeak talde ekologistako kidearekin hitz egin dugu eta gaitzak prebenitzeko zenbait aholku eman dizkigu:

- Ahal izanez gero, ez erabili telefono mugikorrak eta erabiltzekotan, analogikoak erabili, digitalak edo GSM sistema darabilten telefonoak baino osasuntsuagoak baitira.
- Potentzia gutxiko telefonoa erosi, berdin-berdin funtzionatzen dute-eta.
- Telefonoa erabiltzean, antena burutik ahalik eta gehien aldentu, radioak gutxitzen baita. Telefonoa poltsikoan gordeta dagoen bitartean, entzungailua eta mikrofonoa erabiltzea komeni da.
- Etxe berria erostean telefono errepikagailuetatik urrun aukeratu (gutxienez 50 metrotik gora). Etxeak errepikagailuak hurbil badu, pantaila babesle elektrikoak jarri (denda espezializatuetan eskatu informazio gehiago).



# Egokiak iruditzen al zaizkizu telefono mugikorrak?



**JUANITA IRIONDO**  
43 urte, etxeoandrea

Bai, egokiak diala uste dot. Hala ere, lotura haundixa iruditzen jata, ikusi izan dot jendia plaian ere telefonua-kin eta ez dakit tamaina horretaraino dan biharrezkua.



**MARIA MOGOLLO**  
59 urte, etxeoandrea

Bai. Osasun arazoengatik medikuek lokalizatuta eduki gaitzaten erosi genuen telefono mugikorra. Etxetik kanpo denbora asko ematen dugu-nez, ondo datorrigu.



**MARIASUN REVUELTA**  
55 urte, etxeoandrea

Egokiak izan daitezke, baina niri eskaintza egin didatenean, ezezkoa eman dut. Gehiegizkoa iruditzen zait autoan, adibidez, telefono mugikorrarekin hitz egitea.



**DANIEL GONZALEZ**  
21 urte, ikaslea

Bai, baina beharra duenarentzat bakarrik. Itxura egiteko telefono mugikorra erabiltzen duen jende asko dago eta hori ez zait egokia iruditzen.



**JOSE LIBERAL**  
59 urte, jubilatua

Nik ez daukat, baina egokiak direla uste dut. Mendira edo kanpora joanez gero, erabilgarria da. Hala ere, uste dut batzuek brometakoak erabiltzen dituztela, itxura egiteko.




**ALEXANDER ARCE**  
25 urte, kale-garbitzailea

Bai. Etxean ez geneukan telefono fijorik eta mugikorra erosi genuen. Noiz eta nola erabili jakinez gero, oso egokiak dira.

**Iriondo** TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu eta asteburuetan 9:00etan.

Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15



**JOSE** pinturak  
(Txema)

Mota guztietako pintura eta enpapelatuak.  
Zoluak, moketak, sintasola, kortxoak, etab. jartzen dugu.

San Bartolome, 28-1 ezk · Tel: 943 74 12 55 · Mobila: 629 44 23 14

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.


ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin.  
Zatoz informazio eske!

**LARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

Tel: 943 74 10 11





# Osasunean adituak

## GAIA:

### ANEMIA

**E**dozein adinetako gizonezkoak eta emakumezkoak izan dezake anemia. Honakoak dira anemia duen gaixoaren sintoma nagusiak: ezpainak, azala eta entziak zurbiltzen dira, nekea eta ahultasuna nabaritzen ditu gaixoak, atzazalak errazago apurtzen dira, infekzioak izateko aukera handiagoa izaten da, depresioak izan daitezke eta oroimen galerak ere bai.

Odolean globulo gorri gutxi daudenean edo hemoglobina maila jaisten denean sortzen da anemia. Hemoglobina, gorputzeko ehunetara oxigenoa eramateaz arduratzen den proteina da.

Anemia mota asko daude: kasu batzuetan odol asko bat-batean galduz gero gertatzen da, eta beste batzuetan, berriz, odol kopuru txikiak sarritan galtzen direnean. Hemoglobina sortarazteko burdin maila egokia izatea ezinbestekoa da eta baita B-12 bitamina ere, azken hau, globulo gorriak sortzeko beharrezkoa baita. Globulo gorriak azkarregi desegiten direnean, berriz, faktore hereditarioen eraginez izaten da.

Anemia daukagunean, bitaminak dituen pastilak, anpollak edo injekzioak har ditzakegu. Honez gain, oso inportantea da dieta orekatua eta organismoaren beharretara egokitutakoa izatea.

Anemiak sor ditzakeen kalteak ondoak izan daitezke: infekzioak maiztasun handiarekin, haurdun dauden emakumeen kasuan epea baino lehen erditzea, ume jaio berrietan bizkarrezurra bitan zatitua izatea, antzutasuna, bihotzekoa, behazun-kalkuloak, gizonezkoetan inpotentzia,...

### MASAJISTAK

#### Victoria Iraegi

..... P. Migel Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**  
 ..... Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

#### Kemen Belardenda (Diagnostikoak Irisaren eta Kinesiologiaren bidez)

..... San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**  
 ..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

#### Surya Belardenda (Yoga, reiki eta masaia ikastaro eta tratamenduak)

..... San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**  
 ..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### OPTIKAK

#### Ikus (Optiko-optometrista)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**  
 ..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

#### Uzuri (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**  
 ..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

#### Itziar Sarasketa

..... San Bartolome, 9 • Tel: **943 74 35 62**  
 ..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

#### Ibiltzen

..... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**  
 ..... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

#### Iñaki Rivero

..... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**  
 ..... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

### PSIKOLOGOAK

#### Nare psikologoak (Helduak, haurrak eta bikoteak)

..... Isasi 17, 1-B Eibar • Tel: **943 20 05 95**

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu **943 74 37 04ra**

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu **BARRENEko 943 74 41 12ra**

## Lizarra-Garaziren garantia herrietan dagoela adierazi zuten Egibarrek, Otegi eta Goikoetxeak

Bestalde, akordioa internazionalizatzearen garrantzia azpimarratu zuten

Asteazkenean, hilak 28, Lizarra-Garazi akordioaren aurkezpena egin zuten Herriko Antzokian EAJ-PNV, EA eta HB alderdiek antolatuta. Arnaldo Otegi (HB), Jon Goikoetxeak (EA) eta Joseba Egibarrek (EAJ) eman zituzten prozesuaren inguruko azalpenak. Otegiaren esanetan, "orain 25 urte egon zen zatiketaren ondorioz, elkarri bizkarra emanez eta muturjoka ibili gara". Hala ere, esan zuen badagoela faktore klabe bat iritsi diren helmugara iristeko. "Iraganari buruz ezin zitekeen akordiorik egon, beraz, etorkizunari buruz ados jarri behar dugu". Akordioaren zergatia ulertzeko bigarren klabea aipatu zuen Otegi. "Mundu guztiak ulertu behar du Euskal Herria jarri behar dela mahai gainean, eta bakoitzaren interesak albo batera utzi behar direla". HBko bozeramalearen ostean, EAko Jon Goikoetxeak esan zuen euskal arazoaren jatorria politikoa dela eta gatazka historiko honetan Estatu espainiarra eta frantsesa dau-



Joseba Egibar (EAJ), Arnaldo Otegi (HB) eta Jon Goikoetxea (EA) asteazkeneko hitzaldian.

dela inplikaturik. "Beraz, konponketa ere politikoa izan behar da. Elkarriketa eta negoziazio prozesu irekiaren bidez bakarrik lor daiteke konponbide politikoa, inplikaturik dauden eragileak baztertu gabe eta euskal gizarte osoaren partehartzearekin". Hirugarrenik, Joseba Egibar mintzatu zen. Honen esanetan, "Lizarra-Garazi iniziatiba bat da. Iraganari begiratu balantzea egiteko denbora izan dugu, eta oraingo egoeran oinarrituz, etorkizuna

eraiki nahi dugu". Baina etorkizunera begira klabeak baino gehiago zailak adierazi zituen. Lizarrako akordioa Quebec-eko erreferendumarekin konparatu zuen. "Jendeari proiektu politiko bat azaldu behar zaio, ondoren beraiek erabakiko dute proiektu horren aldeko apostua egin ala ez". Hizlariak bat etorri ziren etorkizunean lanik handiena herrietan egin behar dela adieraztean. "Akordioa gauzatu da baina konbentzimendua herrietan egin behar da. Lizarra-Garazi prozesuaren garantia herrietan dago". Bestalde, Estatu frantziarrak eta espainiarrak jartzen dituzten oztupoak gaintitu eta akordioa Europara eta mundura zabaldu behar dugula azpimarratu zuten. "Espainiak isolatu egin nahi gaitu, guri, ordea, internazionalizatzea komeni zaigu".

### ● Elgoibarko kaleak asfaltatzeko proiektua martxan

Udalak, Elgoibarko hainbat kale asfaltatzeko proiektua martxan jarri du. Santa Ana kaleko zubia, San Roke auzoan autopista gainetik pasatzen den zubia, San Roke auzorako igoera, Plaza Txikia eta 'Tiroriro' tabernaren parkeko bidea asfaltatuko dituzte. Orain arte ez da berrikuntza lanik egin, horretaz arduratzen diren langileak ez direlako tramo bakarria asfaltatzera etortzen, makina handiak direlako eta desplazamendu kostuarengatik. Honetaz gain, euriarekin ezin izan dute lanik egin. Beraz, ahalik eta lasterren ekingo diete konponketa lanei.

### Drogei buruzko erakusketa antolatu dute Kultur Etxean

Maiatzaren 7an, ostirala, irekiko ditu ateak herritar guztientzat

Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailak, *Edex* erakundearen laguntzaz, drogomenpekotasunaren prebentziorako programa antolatu du 14 eta 18 urte bitarteko gazteentzat. Programan Elgoibarko ikastetxe guztietako



DBHko 3. eta 4. mailako, LOGSEko 1. mailako eta Debabarreneko Garantia Sozialeko ikasleek hartu dute parte. Ikasleek irakaslearekin eta *Edex* taldeko arduradun batekin ikusi dute erakusketa eta ondoren, gaiaren inguruko eztabaidak egin dituzte gelan. Erakusketan, Autonomi Erkidegoan gehien kontsumitzen diren drogei buruzko azalpenak eman zitzaizkien panelen bidez. Besteak beste alkohola, tabakoa, hatxisa eta disainuzko drogak izan zituzten mintzagai. Ikas-

leek, gelan egindako lanaren ostean, panel batean jarriko dituzte ondorioak eta erakusketara eramango dute. Honela, herritarrek eta gazteen gurasoek, hauek drogekiko duten iritzia jakin ahal izango dute. Programa honen bi-

dez, gazteek drogei buruzko irizpide propioak izatea lortu nahi dute, drogen arazoaren inguruko jarrera positiboa erakutsiz. Erakusketa maiatzaren 7an arratsalde egongo da irekita eta hilaren 8an eta 9an eguerdiko 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara. Maiatzaren 10erako, astelehena, arratsaldeko 18:30erako, programan parte hartu duten ikasleen gurasoei dei egingo zaie erakusketa ikustera eta gaiaren inguruko eztabaidan parte hartzera.



### 446 lan aurkeztu dira Liburutegiko Marrazki eta Idazlan Lehiaketan

Ostirlean, hilak 23, banatu ziren Udal Liburutegian V. Marrazki eta Idazlan lehiaketako sariak. Guztira 446 lan aurkeztu dira aurten, 146 idazlan eta 300 marrazki, hain zuzen ere. Sari banaketa Liburutegiko sarreran egin zen eta irabazleak zein ziren jakiteko irrikaz zegoen ume asko hurbildu zen bertara. Marrazkien atalean hiru akzesit banatu zituzten: Lierni Astigarragak, Amaia Condek eta Iñigo Garayk jaso zituzten. Bigarren saria Leire Oteizarrentzat izan zen eta lehena, berriz, Sara Pelazek eskuratu zuen. Idazlanei dagokienez, bigarren saritua Janire Eguren izan zen, lehena, berriz, Itsaso Alguacil. Akzesitak Eneritz Gonzalezentzat, Asier Astarloarentzat eta Amaia Azkunagarentzat izan ziren.



### Sutea Santa Ana kaleko buhardila batean


Joan den asteartean, hilak 27, sutea izan zen Santa Ana kaleko 24 zenbakiko buhardila batean. Sutea arratsaldeko 17:00 aldera piztu zen, etxebizitzako gela batean. Ezbeharra gertatu zen unean ez zegoen inor etxean. Ertzantza oraindik ikertzen ari da sutearen arrazoiak zein izan diren. Udaltzaingotik adierazi dugutenez, keak eragindakoak izan dira kalterik handienak eta baliatzeak itzaltzeko suhiltzaileek botatuko urak ere beheko solairuetan kalteak eragin izana.

### 'Deba Behea'ri 'Debabarrena' deituko zaio aurrerantzean

Herritar guztiei aditzera eman nahi zaie, Euskaltzaindiak hartutako erabaki baten ondorioz, Deba bailarako bi eskualdeek izen berria izango dutela hemendik aurrera. Euskaltzaindiako Onomastika Batzordeko kideen ustez aproposagoak dira Debagorena eta Debabarrena izendapenak Deba Garaia eta Deba Behea baino, izan ere, azken hauek Nafarroa Garaia eta Nafarroa Behearen kalko hutsak dira. Toponomastika tradizioan *-barren* eta *-goren* dira aspaldiko tradiziodunak. Azken urteotan zabalkunde handia izan dute Deba Garaia eta Deba Behea izenek, nahiz eta Deba arroko jende askori izen hauek arrotzak egin. Eskualdeen izenak ezezik, Mankomunitatearen izena ere aldatu egin dute, eta orain Debabarreneko Mankomunitatea izango da.

### Melitongo zubian arrantzan

Astlehenean, hilak 26, 10 angira inguru harrapatu zituen Francisco Salegik Deba ibaian. Goizeko bostak aldera hasi zen Melitongo zubian kainaberak jarri eta arrantzan, eta 12:00ak alderako, 10 aingiraren jabe egin zen. Badira 30 urte ez duela inork Melitongo zubi inguruan arrantzarik egiten eta bertatik pasatzen ziren oinezkoek eta gidariek harridura aurpegiz begiratzen zioten Fancisori. Hala ere, berak arrantzara joaten jarraituko duela esan digu, baldin eta jende gehiago hurbiltzen ez bada.



### Asier Serranoren emanaldia Lanbroa tabernan

Elgoibarko Izarrako Urruzuno Literatur Taldeak antolatuta, Asier Serrano poeta eibartarrak, hitza eta kantua uztartu zituen emanaldia eskaini zuen apirilaren 23an, Lanbroa tabernan. Gaueko 23:00etan hastekoa zen emanaldia atzeratu egin zuten, eta 23:30ak aldera ekin zion Asier Serranok bere ekitaldiari. Kantuz eta hitzez bere bizitzako zenbait etaparen berri eman zuen.



## Altzolako tren geltokia berrituko dute Udalak eta Eusko Trenbideak erakundeak

Ordutegian ere aldaketak izango dira

Urte asko zain egon ondoren, auzoko tren geltokia berrituta ikusiko dute aurki Altzolako bizilagunek. Udalak eta Eusko Trenbideak erakundeak sinatutako akordioaren arabera, bien artean egingo dituzte eraberritze lanak. Eusko Trenbideak arduratuko da andenaren inguruko sasiak kentzeaz, geltokiko eraikuntzak trenbide aldera begira daukan fatxada margotzeaz, jarlekuak ipintzeaz eta ordutegientzat aluminiozko panela jartzeaz. Udalak, berriz, argiztapenaren arduraz izango du, baita Elgoibarrerako eta Debarako norabidean dauden andenetako hesiak jartzearena eta eskilarak konpontzearena ere. Geltokiko etxearen gainontzeko parteak txukuntzeko asmoa ere badauka Elgoibarko Udalak. Garai batean, komunen edifizioa izan zena botatzeko baimena ere eskuratu dute, izan ere, oso egoera txarrean dagoenez, in-



*Geltokiko komunen edifizioa botatzeko baimena lortu dute jadanik.*

fekzioak sortzeko arriskua omen dago. Ordutegiari dagokionez, Altzolako bizilagunek Donostiako norabidean Altzolatik pasatzen diren eguerdiko eta arratsaldeko trenen orduak 13:30ak eta 20:30ak izan beharrean, trena 14:30ean

eta 18:30ean pasatzea eskatzen zuten. Altzolako bizilagunek Eusko Trenbideak erakundeari proposatutako ordutegia onartzen bada, Donostiako norabidean doan trena 7:30ean, 9:30ean, 14:30ean eta 20:30ean geldituko da Altzolan. Donostiatik Altzolara datorrena berriz 10:00etan, 14:00etan, 18:00etan eta 20:00etan, baliteke azken hau udaran 21:00etara aldatzea. Horrela, gutxi gorabehera bada ere, bizilagunen proposamena errespetatuko lukete. Ordutegi hau ez da zehatza, trenen eskaintza egokitzen ari dira-eta. Eusko Trenbideak erakundeak, bezeroak eta langileak ez nahasteko ordutegi berriarekin ekainaren erdi aldean hastea erabaki du, udako zerbitzuarekin batera alegia. Hala ere, erabiltzaileek kontuan hartu behar dute irailetik aurrera Donostiatik ateratzen den azken trenaren ordua arratsaldeko 20:00etara aldatuko dela.

## Elgoibarko Udalak Altzolako 'Casa Sebastiana' delakoa subastatu du

5.442.000 pta. ordaindu zituen enkantean parte hartu zuen eskatzaile bakarrak

Altzolako tren geltokiko andenaren ondoan dagoen "Casa Sebastiana" ostata subastatu du Udalak. Miradore ederra daukan etxe honen jabeak 300.000 pezetako zorra dauka. Iragarkien eta boletinen bidez jabearen bila aritu ziren arren, ez zuten inon aurkitu, dirudienez ez baitauka etxea eskuratzeko inongo interesik. Beraz, etxea enkantean jartzea erabaki zuten. Subasta Udaletxean egin zuten eta tribunalean interbentorea, diruzaina eta idazkaria egon ziren. Subastaren hasieran etxearen balioa 7.500.000 pezetakoa zen, baina ez zen eskatzailerik agertu. Bigarren subastan, "Casa Sebastiana" delako etxe-



aren jabetza, agertutako eskatzaile bakarrak hartu zuen eta 5.442.000 pezeta ordaindu zituen. Udaleko arduradunek, hirugarren subasta batera helduz gero, etxe-

aren alde pujatzeko asmoa zeukaten baina prezioa jaitsi ez zuten, bertan behera geratu ziren beraien nahiak. Eskuratuz gero, ez zeukaten asmo zehatzik han egingo zutenari buruz. Hala ere, aukera egokia zen eraikuntza erosteko eta aurrera begira bertan proiekturen bat gauzatzeko. Baina, "Casa Sebastiana" delakoak, erosketa gastuez gain, eraberritze lanetan diru asko sartzea eskatzen zuen eta ondorioz, bigarren subastan ez pujatzeko erabakia hartu zuten. Eroslearen izena ez dute ezagutzera eman, beraz, Udaleko arduradunek ez dakite jabeak etxe horrekin zer egingo duen. Baliteke, pentsioa zegoen lekuan etxebizitza berriak eraikitzea.

# KiliBARRREN

Apirilaren 30a  
54. zkia

M E N D A R O K O G E H I G A R R I A



# H

ilabete honetako argazkia **Maria Angeles Olazabalek** lagatakoa da. Erretratua 1967 urtean atera zuten Garagar-tza auzoko plazan. Hona hemen argazkian agertzen direnen izen-abizenak: Lehenengo ilaran, aurrean eta ezkerrean, **Jose Luis Eizagirre**. Bigarren ilaran, ezkerretik eskumara: **Jose Luis Olazabal, Jose Ramon Larrañaga, Agustin Urbieta, Maria**

**Angeles Olazabal, Blanca Zuloaga eta Elisabet.**

Hirugarren ilaran: **Juan Jose Larrañaga, Arrate Landa, Pili Urbieta, Maria Jose Arriola eta Belen Azpiazu.**

Laugarren ilaran: **Jesus Azpiazu, Inmaculada Urbieta eta ezezaguna.**

Azken ilaran: **Jose Mari Ansola, Jesus Garcia eta Jose Mari Garate.**

# Oporrak Mendaron

*Ez da denbora asko falta udako oporretarako, eta mendarotarrok hasiak gara planak egiten. Udan jende asko herritik kanpora joaten dira. Hala ere, herrian bertan geratzen garenok badugu nora joan eta zer ikusi. Askotan ez gara ohartzen inguruan ditugun aukerez, eta Mendaron bada non aukeratu. Mendiazaleek Izarraitz eta Arno mendiak dauzkate. Espeleologia mundua gustuko dutenentzat Mendaro*

*inguruan haitzulo ikusgarriak daude. Historia kutsuko bazterrak ere ez dira falta. Honen adibide dira garai batean hain garrantzitsuak izan ziren karobiak. Eta noski, Kilimoi eta Intxusai erreketako ur gardenak eta urjauziak ere hor daude. Baina uda urruti ikusten dutenek eta udaberriko aste bukaerak edo egun eguzkitsuak aprobetxatu nahi dituztenek ere badute Mendaron horretarako aukera.*

Udaberrian mendira joatea gustuko dutenentzat ibilbide egokia prestatu dugu. Azpilgoeta auzotik atera eta, Elgoibarko norabidean errepidearen ondoko pasealekutik, Plaza auzorantz abiatuko gara. Auzoa zeharkatuz, Artañola baserri-ira iritsiko gara, Intxusai erreketaren bazterean dago baserri hau, aitzina burdinola izan eta gaur egun berrituta dagoena. Hemendik hormigoizko bidean gora 4 kilometro oinez egin ostean, Arnoate baserrira helduko gara. Elgoibarrekin muga egiten duen baserri hau leku aproposa da atsedena hartzeko. Arnoate gainera iristean, bidearen eskuinetik ekialdeko norabidea hartuz, pinadian sartuko gara eta pinu artean Amei-Kutzeko Harritente-rainoko bidea egingo dugu, berriz ere eskuineko pista hartu eta argiune batera irten arte. Ezkerretik gorantz joanda artadi batera helduko gara eta Kanpanzar gailurraren magaletik pasa ostean Ormolako putzura iritsiko gara. Arnoate baserritik Ormolako putzura



*Intxusai errekan dagoargazkiko urjauzia*

artean dagoen bidea marra gorritz eta zuriz markatuta dago. Mendarora itzultzeko, Ormolako putzuaren ondoan dagoen hesia

igaroko dugu eta pinadian behera doan pistari jarraituz, txabola bat bistatuko dugu. Eskuinetik gorantz doan pistatik Sahatzu-gain ingurura helduko gara, eta "Ospas-gain" futbol zelaitik eta Ospas dorretxearen ondotik pasatuz, Mendarora helduko gara. 4 orduko ibilbide honetan hainbat leku interesgarri bisita daitezke.

## HAITZULOAK eta KAROBIAK

Gure herriko historiaren zati esanguratsu bat ezagutu nahi dutenek karobiak ikusi ahal izango dituzte, eta aitzinako kontuak espeleologiarekin uztartzeko gogoia dutenek, haitzuloak bisitatzeko aukera izango dute. Karobiak, kisuabeak izenarekin ere ezagutzen diren eraikinek, garai batean garrantzi handia zuten Euskal Herrian eta Mendaron badugu horren lekukorik, gaur egun baztertuak dauden arren. Karobiak, harri eta egurrezko kapak bata bestearen gainean jarriz egindako labeak dira eta kare bizia egiteko erabiltzen ziren. Kareak, hormak zuritzeko, ikuiluak garbitzeko edo baratze-tako ongari gisa erabiltzen zen. Ez ziren



familia bakarrarenak izaten, jende multzo handiago batena baino, lan zaila baitzen karea lortzeko prozesuak eskatzen zuena. Karobiak errepede ertzetan egoten ziren. Erregai bezala otea, ginarra edo basoko beste zenbait landare erabiltzen zituzten eta karea egiten hasi aurretik, hauek mendian batzera joaten ziren gizonetakoak zein emakumeetakoak. Karobiari barrenetik ematen zitzaion sua eta ondoren, etengabe egurra bota beharra egoten zen indarririk gal ez zezan. Egun askotako lana izaten zen eta janaria eskuratzeko emakumeak arduratzen ziren. Lana bukatutakoan familia guztien artean banatzen ziren etekinak balantza erabiliz. Prozesuan parte hartu zutenek bukaeran lagunarteko afaria egiten zuten, eta sarritan, kantuan eta dantzan amaitzen zuten.

Garagartza auzora jotzen badugu, bertan aurkituko ditugu Mendaroko hai-



*Garagartza auzoan daude Mendaroko haitzulo gehienak.*

tzuloak. Aitzbeltz, Aizkoltxo, Agarre, Lizarrola eta Kurpitte dira horietako leizezulo batzuk. Garaienak, Aitzbeltzek 370 metro ditu eta Kilimon erreka haran estuaren bukaeran kokatuta dago. Aizkoltxok, aldiz, 30 metro ditu eta bertara iristeko, "Calderería Lilí" lantegiaren ezker aldean hasten den bidetik 50 metro gora egin, eta ezkerreko bide zidorrean, beste 60 metro egin ostean, kobazuloa izango dugu gure begien aurrean. Leizezulo hauetan indusketa ugari egin dituzte eta, besteak beste, animalien eta gizakien hezurrak agertu dira leizezuloetan, baina aztarna asko galdua daude.

Beraz, Mendaron bada zer ikusia eta zertaz gozatua, mendi buelta bat emanez, aztarna historikoak ikusiz edo kobazuloetan barrena gure arbasoen bizilekuak ezagutuz. Ez dezala gero, inork aspertzeko aitzakiarik izan.

**M**endi buelta egin edo Mendaroko txokoak ezagutu ostean, atsedena hartzeko toki ezinhobea da Atxuri baserria. Atxuri, nekazal turismo etxea, Atxi mendiaren magalean kokatuta dago. Artxiboko datuen arabera, 1500 urterako eraikia zegoen baserria. Baina, mendeak aurrera joan ahala, nahiko zaharkitua zegoela eta, Izarraitz Bizirik Elkartearen proiektuaren barruan, eraberritzea eta nekazal turismoarako egokitzea erabaki zuten. Izarraitz Bizirik Elkarteari esker, Atxuri ezezik, beste zenbait nekazal turismo etxe ere egin dira inguruko bailaretan.

Gaur egun, Atxurin 12 lagunentzako logelak daude. Horretaz gain, bertara doazentzako sukalde librea ere badago. Gainera, Atxuriko logelek berezitasun txiki bat dute, logela bakoitzak bailarako mendiren edo erreka baten izena dauka, esaterako, Izarraitz, Arno, Kilimon... Atxurik, nekazal

## ATXURI BASERRIA, NEKAZAL-TURISMORAKO AUKERA



*Atxuri baserria Atxi mendiaren magalean dago.*

turismoaren abantailak bat eskaintzen du. Mendia gogoko duenak ibilaldi ederrak egin ditzake inguruko parajeetan. Bestalde, itsasoa gustuko dutenentzat ere, bada aukerarik, izan ere, Larraskandatik Lasturrera eta handik Itziarrera apenas dago bide luze-rik. Bertara hurbiltzen den jendea lasaita-

sun bila joaten da gehinbat, eta batez ere, Bartzelonatik joaten dira. Datorren abuzturako ere kataluniarrak dira erretserba gehien egin dituztenak. Madrildik ere jende ugari joaten da. Donostia eta Bilboko Guggenheim museoak ikustera etortzen dira gehienak. Euskaldunak ere joaten dira Atxurira, baina egonaldi laburrak egiten dituzte. Jende gehien udan, Aste Santuan eta Konstituzioko zubian egoten da, baita Gabonetan ere.

Iaz Valentziako 12 lagun izan ziren Gabonetan eta beraiekin ospatu zuten Gabonahar gaua. Merendero gisa ere funtzionatzen du Atxurik, asteburuetan mendi buelta egin ostean, hamaiketako edo bazkari eder bat egiteko leku paregabea baita.

### ❖ **Hautesle-zerrendak jendaurrean ikusgai daude**

1999ko ekainaren 13an Europako Parlamenturako, Udalerako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak egingo dira. Hori dela-eta, hautesle-zerrendak jendaurrean izango dira ikusgai, apirilaren 26tik maiatzaren 3ra bitartean, nahi duenak ikusi eta erreklamazioak egin ditzan. Hautagaien zerrendak, berriz, maiatzaren 5etik 10era bitartean aurkeztu beharko dira eta hauteskunde juntek maiatzaren 17rako onartu beharko dituzte. Hauteskunde mahaien zozketa, maiatzaren 15etik 19ra bitartean egingo da.

### ❖ **Ur zerbitzuaren gestioa "Ur Zerbitzuak" enpresaren esku gelditu da**

1998ko abenduaren 23ko Udalbatzak, ur zerbitzuaren gestioa "Ur Zerbitzuak" enpresari ematea erabaki zuen. Beraz, 1999ko lehen hiruhilabetetik hasita irakurketak, fakturazioak eta instalazioen mantenuak (kontadoreak eta sareak) aipatutako enpresako langileek egingo dituzte, baina hasieran Udaleko langileen laguntza izango dute. Udalak herritarren kolaborazioa eskatu nahi du, erabakitako aldaketa zerbitzua hobetzeko izango baita.

### ❖ **Enplegu sustapenerako kanpaina zabalik dago**

Urtero bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta INEMek, bakoitzak bere kontura, enplegu sustapenerako kanpaina zabaldu dute. Udalak, plangintza honek ematen dituen laguntzak aporbetxatuz, 2 peoi eskatuko ditu ingurunean hobekuntza lanak egiteko.

## **Baserrietako zaborrak ateratzeko kanpaina zabaldu du Udalak**

Ingurunea garbiago mantentzeko asmoz, Udalak kanpaina bat zabaldu nahi du baserriarren artean. Kanpaina honen bidez, baserriarrek, zaborrak baserrietako bide hasieran dauden ontzietara bota ditzaten kontzientziatu nahi dituzte, ahal den hobekien sailkatuta, noski. Zaborrontziak erabiltzeagatik ez diete kobratuko. Era berean, hildako animaliak leizeetara ez botatzeko



eskaria luzatu nahi diete baserriarrei, Mendaroko lur karetsuarengatik urak kutsatzeko arriskua baitago. Beraz, animalien gorpuak lurperatzeko edo erretiratzeko gomendatzen dute. Nahi izanez gero, baserrietan hildako animaliak Lapatzeko isurtegitira eramanez ditzakete Debarreneneko Mankomunitateko arduradunek. Zerbitzu honen zenbatekoa 5.000 pezeta ingurukoa da.

## **Mendaroko bizkotxoak egiteko labearen esplotazioa**



Mendaroko bizkotxoak egiteko erabiliko den eraikinaren zaharberritze lanak eta egurrezko labea eraikitzeko obrak amaitzean daude. Udalak, jatorrizko produktu honek izan dezakeen arrakasta ikusita, berehala onartuko du Errentamendurako Lehiaketa arautuko duen baldintza-plegua. Proiektu honen helburua Mendaroko bizkotxogin-

tza berreskuratzea da, baina labea erabiliz beste produktu batzuk egiteko eta saltzeko aukera ere bada. Besteak beste, ogia, opilak... Inaugurazioa maiatzean egitea espero da, azken aldera hain zuzen ere. Negozio hau aurrera eramateko interesa dutenek edo proiektuaren berri jakin nahi dutenek, Udaltxera jo beharko dute.

*Juan Gabilondok 62 urte ditu eta lan egin duen hainbat enpresatan kanpo merkataritzan aritu da. Lanbide honek munduko herrialde asko ezagutzeko aukera eman dio. Jende askorekin egin ditu negozioak eta denekin ikasi du zerbait. Irakeko ministroa ere, enpresa gizona zenean elkarrekin egindako negozioetatik ezagutzen du. Hala ere, hainbeste bidaiak irakatsi dioten garrantzitsuena etxean daukaguna estimatzen jakitea da.*

# JUAN GABILONDO

## "Atzerritarren izaera eta ohiturak ezagutzeak asko laguntzen du negozioetan"

– **Kanpo merkataritzarekin loturiko enpresetan egin duzu lan, ezta?**

Bai. Bilbon Merkataritza ikasketak bukatu eta gero Elgoibarrera itzuli nintzen. Gabilondo y Cia. eta Estarta lantegietan aritu ondoren, gaur egun Matlerholding S.A enpresako zuzendarietako bat naiz. Erreminta makinako enpresak izan dira denak, eta sektore honetan kanpo merkataritzak garrantzi handia du, bidaiak asko egin behar direnez, herrialde asko ezagutzea tokatu zait.

– **Zein izan da gehien harritu zaituen herrialdea?**

Gure enpresa herrialde komunistetara esportazioak egiten aitzindaria izan zen, erreminta makina produkzioak saltzeko merkatu berriak urratu beharra zegoen eta. Herrialde komunistetan Rusia, Ekialdeko Europa, Txina etab. erosteko eta sal-

tzeko harremanak oso ezberdinak ziren, edozer egin aurretik Estatuko ordezkariarekin negoziatu behar baita. Beste pentsamolde bat dute.

– **Herrialdeak eta bertako en ohiturak ezagutzeko asirik izaten al duzu?** Herrialde askotan izan naiz, baina oso gutxi ezagutu ditut behar bezala. Batez beste, pare bat aste bakarrik egiten dugu herrialde bakoitzean eta denbora tarte motzegia da tokiak ezagutzeko. Lan bidaiak direnez, ez da asti gehiegirik izaten eta azkenerako etxera ekarriko zaituen hegazkinean besterik ez duzu pentsatzen.

– **Zer da bidaiatzetik gutxien gustatzen zaizuna?**

Bi gauza daude. Batetik, ordu aldaketek sortzen dizkidaten nahasketak, jateko gogoa eta logurea kentzen didate. Bestalde, zenbait herrialdeetako janariak ez ditut oso gustuko. Txinan, adibidez, eskorpioak eta sugeak

jan nituen. Bezeroek asmo onenarekin gonbidatzen zaituzte, eta gogoz kontra bada ere, jan beharra dago, inor haserretu ez dadin.

– **Zer egiten duzu herrimina sentitzean?** Azkenerako kanpoan egotera ohitu naiz, baina herriminik ez izateko onena, ahalik eta azkarren etxera itzultzea da. Atzerriko herrialde asko bisitatu ostean ohartu naiz ez dakigula estimatzen nola bizi garen. Hortaz ohartzeko oso ongi dago herrialde eta pertsona berriak ezagutzea, baina hemen baino hobeto inon ere ez.

– **Irakeko ministroa ere ezagutzen duzu, ezta?**

Golkoko gerraren aurretik, Irakeko fabrika bateko zuzendari nagusiarekin izan nituen negozio harremanak. Gaur egun garraio eta lan publikoetako ministroa da. Negozio-gizon gogorra zen, eta ez zait ahaztuko Gabonak Iraken pasatzera behartu ninduela behin, kontratua sinatzen bukatzeko. Azkenerako oso ondo konpondu ginen, eta orain dela gutxi Madrilera egin zuen bidaiak batean, berri ere gogoratu nion Gabonak guretzako familiarekin pasa beharreko egunak direla. Berak, negozio-gizonek horrela jokatu behar dutela erantzun zidan barrez.

– **Zer ezaugarri behar ditu negozio-gizon on batek?**

Ezinbestekoa da ingelesa ongi menperatzea. Jendearen izaera eta ohiturak ezagutzea ere oso garrantzitsua da. Ekialdekoek esaterako, garrantzi handia ematen diete erritoei, agurrei eta antzerakoei. Estatu Batuarrek, berriz, oso zuzenak dira tratu eta pentsatzen dutena aurpegira esaten dizute. Txinarrak ere oso zailak dira konbentzitzen, eta aguantate handia behar da.

### BESTEAK ESANA

"Oso pertsona leial eta arduratxua da. Beti laguntzeko prest, inori edo ezerrri uko egin gabe."

AGUSTIN GOROSTIZA, laguna.







Ernesto Zubiaurre

**E**Ernesto de Zubiaurre 71 urteko elgoibartarra da eta duela 32 urte joan zen Zaragozara. 1954an Industri Injenerutza ikasketak Bilbon

amaitu eta bi urte beranduago, Forjas de Elgoibar S.A lantokian (gaur egun Leku-Eder dagoen tokian) hasi zen lanean, enpresako injeneru zuzendaria zen. Baina lan kontuengatik, lantokia Zaragozara aldatu zuten. 1974 urtetik Zaragozako Injeneru Industrialen Eskolako irakasle katedraduna izan da joan den urtean jubilatu zen arte. Maria Pilar Eizagirrerekin dago ezkondua eta bederatzi seme-alaba dituzte, asko Zaragozan jaio eta ezkondu dira. Euskal Herrira bueltatzea asko gustatuko litzaiokeela esan digu, baina familia han sustraitu dela adierazi digu. "Euskal Herrira sarri bueltatzen gara, Ondarrun pasatzen ditugu oporrak eta Elgoibarre, berriz, San Bartolome jaietan joaten gara. San Bartolome Eguneako meza nagusia, Bandaren kontzertua eta Txiki Egunean, kuadrilarekin egiten den bazkaria huts egin ezinezko zitak dira". Mendian ibiltzea, musika entzutea eta Euskal Herriko historia ikertzea asko gustatzen zaizkio eta BARREN irakurtzea euskara ez galtzeko modu ezinhobea dela aipatu digu.



VIAJES **BILBAO EXPRESS** BIDAIAK

**bidai agentziak  
babestutako atala**

Foruen enparantza, 3  
Tel: 943 74 39 12

## Josefa Albizu Etxaniz

(1900-1994)



- 1900eko urriaren 12an jaio zen Lekunberri baserrian. 8 anai-arrebatatik zortzigarrena izan zen. Familia handia zenez, 8 urterekin atera zen Mallabira. 2 ahizpa zeuzkan ezkondua bertako 2 baserrian, eta bietan lan egin zuen umeak zaintzen eta etxeko lanak egiten. Bere ahizpen familietan ikasi zuen defendatzeko beste.
- 15 urterekin Arrate bailarako Umaixo baserriara joan zen zerbitzatzera, eta bertako ohiturari jarraituz, kuadrilan joaten zen Arrateko, Usartzako eta inguruko erromerietara. 3 urteren ondoren, bere jaiotetxera itzuli zen eta etxeko eta baserriko lanak egin zituen. Soroan gizonen besteko trebezia zeukan igitaiarekin belarra ebakitzen.
- Auzoko erromerietan ibiliaz, Kurutzetan bilatu zuen senargaia. Dantza soltean oso trebea zen. 23 urterekin ezkondu zen Armaitxa Beheko Jose M<sup>a</sup> Zubizarretarekin eta 8 seme-alaba izan zituzten. Segituan hartu zuen martxa berria langile amorratu honek eta era guztietako lanak egin zituen. Etxean, baratzean, soroan, ikuiluan, ardiekin... aritzen zen eta lanean ez zen aspertzen. Familia izan eta hurrengo egunean, etxeko lanak egiten hasi zen. Senar-emazteak beraien umeekin Arratera, San Antoniora... askotan irteten ziren.
- Josefa sinesmen handikoa zen, eta San Lorentzoko elizara joateko ohitura zeukan. Norbaitek bere partez erreztatzeko esan eta honek otoitz egiten zuen. Plazentziara, sagarrak saltzera, bidaia asko egindakoa da.
- Josefa, Armai-Txiki izenez ezagutzen zen eta familia handia hazi zuen. Joxe, Elgoibarko bertolarien txapelduna izandakoa, bere semea da. Alaia izan zen, familia girokoa, hizlaria eta borondate onekoa. Bere zaletasunak euskal dantzak eta bertsolaritza ziren.
- Mende hasierako emakume ezagun hau, 1994ko urriaren 8an hil zen 94 urte zituela.

Juanito Gorostiza

**HERRI-GAIN  
ERRETEGIÀ**

San Pedro auzoa, 4  
☎ 943 74 30 40 ELGOIBAR



Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ 943 20 35 15  
☎ ABERIAK 943 20 31 25  
Bista Eder, 11 (sotanoa)  
● 20600 EIBAR



A

ste honetako erretratu zaharra **Jose Zubiaurre 'Balle'**k ekarri digu. Argazkian Elgoibarko dantzariak agertzen dira, 1943. urtean Ermuan eskaini zuten saioa hasi baino lehen ateratako argazkian. Gerra ostean egin zuten lehenengoetariko dantza saioa izan zen. Josek esan digu-

nez, "gerra ostian dantza eitxia ez zan oso ohizkua izaten. Ermuko hau, in zan lehenengo aldixetakua izan zan". Honako hauek dira, Ezpata Dantza egiteko prest dauden dantzariak, lehenengo ilaratik eta ezkerretik hasita: **Juanito Iriondo (†)**, **Enrike Gil "Patri"**, **Julian Iriondo**, **Jose Juaristi (†)**, **Mikel Gorostiza**, **Jose Zubiaurre "Balle"**, **Paco Juaristi (†)** eta **Anjel Aizpitarte (†)**.

● **Zuriñe Polo, Espainiako Judo Txapelketako Sektoreko faserako sailkatuta**

Ibai Kirol Elkarteko Zuriñe Polo judokak Euskadiko selekzioaren probetan hartu zuen parte. Gazteizko Judizmendi kiroldegian pasaden apirilaren 17an. Zuriñe Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako txapelak kontra aritu zen, 15 urtez azpiko mailan. Ez zuen arazorik izan guztiei irabazteko eta, beraz, Espainiako sektoreko faserako sailkatu da. Sektoreko probak maiatzaren 2an izango dira Errenterian. Lehen bien artean sailkatzea lortuko balu, zuzenean joango litzateke Madrilera, hurrengo astean Estatu-ko finaleran parte hartzera.

● **Sorospeneko eta lehen laguntzetako titulua lortzeko ikastaroa**

Uretako sorospeneko eta lehen laguntzetarako titulua eskuratzeko ikastaroa antolatu dute Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak, Eibarko Kirol Prestakuntzako Zentroak eta Gipuzkoako Salbamendu eta Sorospen Federazioak. Klaseak maiatzaren 8tik ekainaren 26ra bitartean izango dira Kiroldegiko igerilekuan eta guztira 75 orduko iraupena izango dute. Ikastaroaren prezioa 37.000 pezetakoa da. Informazio gehiago nahi duenak Kiroldegira deitu (943 74 44 15).

● **Arko tiraketa ikastaroak antolatu ditu Udal Kirol Patronatuak**

Geziak arkuarekin jaurtitzeko erakusteko ikastaroa antolatu du Udal Kirol Patronatuak. Maiatzaren 14an hasi eta ostiralero 19:00etatik 21:00etara izango dira klaseak Olaizaga kiroldegian. Ikastaroaren prezioa 5.000 pta.koa da bazkideentzat, eta 5.500 pta. bazkide ez direnentzat. Hilabeteko iraupena izango du eta 16 urtetik gorakoentzat da. Izena Kiroldegian eman daiteke (943 74 44 15).

**Hasi da Herri arteko Pilota Txapelketa**

Elgoibartarrak Hernaniko, Amezketako eta Azpeitiko pilotarien talde berean daude

Joandako ostira-lean, hilak 23, Ikastolako frontoian jokatu zituzten elgoibartarrek Herri Arteko Eskuz Binakako Pilota Txapelketako lehen partidua. Kadete, jubenil eta senior mailetan, hernaniarren aurka neurtu zituzten indarrak. Kadeteetan Ubera eta Loiola elgoibartarrek 13 eta 18 galdu zuten Ruiz de Galarreta eta Yubero hernaniarren aurrean. Jubenetan ere, elgoibartarrek ezin izan zuten irabazi; Pereak eta Arrillagak 5 eta 22 galdu zuten Erroizena eta Santa Cruz bikotearen aurka. Seniorretan, berriz, 22 eta 12 irabazi zuten Ansolak eta Balzolak, Oiaga eta Uzkudun hernaniarren kontra. Aurrean parte hartzen duten pilotariak 4




*Argazkiaren ezkerrean, Arrillaga-Perea jubenil mailako bikote elgoibartarra.*

edo 3 herriz osatutako taldeetan banaturik daude. Elgoibartarrek ez zuten zorte gehiegirik izan taldeen zozketan eta Hernaniko, Amezketako eta Azpeitiko pilotarien aurka neurtu beharko dituzte indarrak, pilota munduan maila handiko herriak hirurak. Gainera, taldeko lehena bakarrik sailkatuko da.

**Egoitz Morak zilarrezko domina irabazi zuen Fuenlabradako Nazioarteko Judo Txapelketan**

Egoitz Mora elgoibartarrek zilarrezko domina irabazi zuen Fuenlabradako (Madril) juniorren Judo Txapelketan: apirilaren 25ean. Honako selekzio hauek parte hartu zuten Txapelketan, Portugal A eta B, Espainia A eta B, Madril, Andaluzia, Nafarroa eta Euskadiko Autonomi Erkidegoak. Europako Txapelketarako puntuagarria da proba hau, eta selekzioka eta bakarka aritzen dira partaideak. Espainiako B selekzioarekin parte hartu zuen Egoitzek eta finala jokatu zuen Espainiako A selekzioarekin. Bakarka, 90 kg baino gutxiagoko pisuan, maila handiko lehiaki-



*Egoitz Morak nazioarteko lau konpromiso garrantzitsu ditu.*

deak izan zituen, baina finalerdietan Madrilko txapelkunaren aurka irabazi ondoren, finalera iritsi zen. Finala Espainiako junior txapelkunaren aurka tokatu zitzaion. Egoitz irabazten hasi zen, lehiakidea birritan bota baitzuen lurrera, baina deskuido bat izan zuen, eta horrelakoak ez dira barkatzen. Madrildarrak aprobetxatzen jakin zuen eta txapela irabazi zuen.

Orain nazioarteko beste lau konpromiso garrantzitsu ditu: Toulouse (Frantzia), Coimbra (Portugal), Alemanian eta Hungarian. Azken hauetako biak Espainiako selekzioarekin dira eta Europako Txapelketarako puntuagarriak izango dira.



# 119 partehartzaile izan ziren Elgoibarko 7. Duatloian

2 elgoibartarrek bakarrik hartu zuten parte lasterketan

**E**lgoibarko Duatloian 7. edizioa Iñaki Bodegas, Athletic San Sebastian taldeko donostiarrak irabazi zuen pasa den igandean, hilak 25. Guztira 119 korrikalarik hartu zuten parte eta 112k amaitu zuten, 7 korrikalarik amaitu gabe utzi baitzuten. Aipagarria da 6 emakumek bakarrik hartu zutela parte. Bestalde, eguraldi benetan aproposa egin zuen eta horri esker, 3 proba gogorak eramangarriagoak izan ziren lasterkarientzat. Hala ere, haize zazkarra zegoen eta bizikleta probarako oztopoa izan zen. Lasterketa 3 partzialez osatua zegoen: 5,5 kilometro korrika, 3km bizikletan eta 3,5 km saltaka. Elgoibartarrei dagokienean, Urgazi Triatloi Taldeko Arkaitz Mujika eta Martin Lopez de Larrainzar izan ziren ordezkari bakarrak. Arkaitz Mujika sailkapen nagusian 63. lekuan iritsi zen eta Martin Lopez de Larrainzarrek 80. postuan amaitu zuen lasterketa.



Sailkapen nagusiko lehen hiru lasterkariak.

Ezkerrean, lehenengo emakumekoa eta eskuman, Arkaitz Mujika, herriko lehena.

## SAILKAPEN NAGUSIA

GIZONAK	DENBORA
1-Iñaki Bodegas	1h25'24"
2-M. Angel Odriozola	1h26'04"
3-Luis Miguel Garijo	1h26'25"

EMAKUMEA	DENBORA
1-Ana Casares	1h39'51"
2-Paki Markez	1h50'36"
3-Iordana Aranberri	1h56'59"

ELGOIBARTARREN eta URGAZI TALDEKOEN SAILKAPENA	
1-Ion Aizpurua	1h29'30"
2-Arkaitz Mujika	1h37'25"
3-Joseba Alegria	1h38'01"
4-Andoni Calles	1h38'05"
5-Martin Lopez de Larrainzar	1h41'49"
6-Juan Ignacio Akarregi	1h52'56"
7-Imanol Esnaola	1h56'01"
8-Iordana Aranberri	1h56'59"

### ● Pilar Arriola bigarrena izan da Bilboko Maratoi erdian

Pilar Arriola korrikalariak bigarren geratu zen Bilboko maratoi erdian pasa den larunbatean, hilak 25. Lasterketa herrikoia zen eta 1.000 pertsona inguruk parte hartu zuten. 20 kilometroak egiteko 1h35' egin zituen Pilarrek. Iaz Euskadiko Txapelketarako puntuagarria izan zen Bilboko Maratoi erdia eta Pilar hirugarren geratu zen, baina aurreten lortutako bigarren postuak ez du balio bera izan.

### ● 8. Lagunak Pilota Txapelketa martxan

Lagunak Pilota Eskolak urtero antolatzen duen Lagunak Pilota Txapelketa martxan da jadanik eta San Juanak aldera arte luzatuko da. 40 pilotari inguruk eman dute izena eta lau mailatan banatuta daude. Aurreko urteetan Plaza Handiko frontoian jokatzen ziren partiduak. Frontoiaren berritze lanak direla eta, partiduak Ikastolako frontoian jokatuko dira asteleheneetik ostegunera, arratsaldeko 17:00etatik aurrera eta ostiraletan arratsaldeko 20:30ean hasita.

## EMAITZAK

### Futbola

**Haundi 0** - Beasain 1  
 Aretxabaleta **0** - Elgoibar **0** (1. erreg.)  
 Elgoibar **1** - Real Sociedad **0** (L.N. jub.)  
 Burumendi **0** - Elgoibar **7** (1. jub.)  
 Kostkas **3** - Elgoibar **3** (Kad.)  
 Arrasate **1** - Elgoibar **1** (O. inf.)  
 Elgoibar **4** - Añorga **1** (Neskak)  
 Pedrusko **6** - Mariaren Bih. **4** (2. erreg.)

### Esku pilota

**LAGUNAK PILOTA TXAPELKETA**  
 J. Guenetxea **18** - U. Bilbao **13** (Benj. mut.)  
 A. Larrea **18** - M. Elustondo **10** (Aleb.)  
 K. Arrizabalaga **18** - G. Zulaika **9** (Benj.)  
 A. Arrese **18** - Zubiaurre **14** (Benj.)  
 U. Larrañaga **18** - J. Mugerza **14** (Aleb.)  
 E. Zulaika **13** - J. Muñoz **18** (Aleb.)

### HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Ubera/Loiola **13** - R. Galarreta/Yubero **18** (Kadeteak)  
 Perea/Arrillaga **5** - Erroizena/S.Kruz **22** (Jubenilak)  
 Ansola/Balzola **22** - Oiaga/Uzkudun **12** (Seniorrak)

### Eskubaloia

IMH Elg. **25** - Donibane **20** (Sen. mut.)

### Idarraga Kafeak 2. saria

**HAUNDIko jokalarri erregularrena 98/99 JOKALARIA . . . . . PUNTUAK**

1- Aitor Trebiño . . . . .	32
2- Ibon Muguruza . . . . .	32
3- Madina . . . . .	29
4- Díaz . . . . .	29
5- Eneko . . . . .	28
6- Gurrutxaga . . . . .	28
7- Txasio . . . . .	26
8- G. Lazarobaster . . . . .	24
9- Iker Leonardo . . . . .	22
10- Caro . . . . .	20
11- Beitia . . . . .	18
12- Igor . . . . .	16
13- Elkoro . . . . .	15
14- Loren . . . . .	13
15- G. Leonardo . . . . .	10
16- Portu . . . . .	1
17- Joseba Igartua . . . . .	1


## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

**Larunbata, 1**  
**17:00** Elgoibar - Antoniano (Neskak)  
**Igandea, 2**  
**10:30** Elgoibar - Antiguoko (Inf. aur.)  
**12:00** Elgoibar - Antiguoko (Oho. inf.)  
**16:00** Elgoibar - Adavi-Eguzki (1. kad.)



Olaso, 23 · 943 74 20 37



## Eleberri bikaina

Ezagunak dira euskal literaturan Ramon Saizarbitoriaren eleberriak. “Egunero hasten delako”, “Ehun metro” edo “Ene Jesus” bezalako lanekin, modernismoaren haize berriak ekarri zituen gure literaturara, beste zenbait egilarekin batera.

Urte dexenteko isilaldiaren ondoren, idazle donostiarrak “Hamaika pauso” eleberria aurkeztu zigun 1995ean. Euskal gatazka delakoa gaitzat harturik, afusilamentu baten kontaketa egiten du. Istorioak ez dauka kontakizun linealik, zatikatua da, nahastua denboran. Irakurleari, behar bada, hasieran zaila egiten zaio, baina emaitza bukaran bikaina da, irakurleak errelatoaren zatiak jasotzen joan ondoren, amaieran bere buruan osatzen baititu.

Kontatzen denarengatik, egiturarengatik, lantzen diren gaiengatik (politika, gizartea...) etab., eleberri benetan handia dugu honakoa. Azken urteetan euskaraz idatzi den nobela onenetakoa da, euskal literaturaren maila erakusten duena. Are gehiago, euskaraz sekula idatzi den lan hobereenetako bat dela esatera ausartuko nintzateke.

Jon Eugi

## Marta Carrasco dantzari kataluniarrak *Blanc d'ombra* ikuskizuna eskainiko du

Maiatzaren 7an izango da Herriko Antzokian, gaueko 22:30ean

*Marta Carrasco dantzari eta koreografo kataluniarrak 'Blanc d'ombra' ikuskizuna eskeiniko du datorren maiatzaren 7an Herriko Antzokian, gaueko 22:30etik aurrera. Saioa, Haritz Euskal Dantzari taldeak antolatuta du, Udalaren Musika eta Dantza Fundazioaren laguntzarekin.*

**B**lanc d'ombra Marta Carrascok sortu eta antzezturiko bigarren bakarkako lana da. Elgoibartar askok gogoan izango duenez, iaz ere gure artean izan genuen, Haritz Dantzari Taldearen 25. urteurreneko ekitaldien bueltan, *Aiguardent* ikuskizun arrakastatsua antzeztuz. Ikuskizun berri hau sortzeko, 1943. urtean hil zen Camille Claudel eskultore frantziarraren biografian oinarritu da. August Rodin margolariaren emaztea izan zen Camille, eta bizitzako azken 30 urteak zoroetxean pasa zituen. Ikuskizuna Camille Claudet zoro-



*Camille Claudel eskultore frantziarraren bizitzaren azken urteetan dago oinarrituta antzerkia eta dantza uztartzen dituen ikuskizuna.*

txeko aulki batean eserita dagoela hasten da, 75 urte ditu eta hiltzorian dago. Bere bizitzako pasarte garrantzitsuenak gogoratzen hasiko da eta Marta Carrascok bere gorputzaren keinuekin eta mugimenduekin lortuko du oroitzapen horiek ikusleengana heltzea. Obra guztian antzezle bakarra dago, Marta Carrasco bera, eta antzerkia eta dantza nahasten ditu.

## Bilboko eta Sitgesko Zinemaldietan saritutako bi lan eskainiko ditu Ongarri Zine Klubak maiatzaren 6an

*Patesnak* laburmetrajea eta *Cube* filmea izango dira ikusgai

**Z**inea eta emakumea Zirikloak izan duen harreman onaren ostean, maiatzaren 6an, osteguna, ohizko emanaldiekin itzuliko dira Ongarri Zine Klubekoak. Filme labor batekin hasiko da ekitaldia, eta ondoren, beste pelikula bat emango dute. Euskal filme laborrak ezagutzera emateko duten helburuari eutsiz, Teo Esnalen eta Iñaki Altunaren

*Txotx* eta Tinieblas Gonzalezen *Por un infante difunto* filme laborren ondoren, Iñaki Elizalderen *Patesnak* laburmetrajea eskainiko dute datorren ostegunean, maiatzak 6. Zinegile nafar honek sari ugari irabazi ditu, besteak beste, iazko Bilboko Nazioarteko zinemaldian laburmetrajerik onenaren saria eskuratu zuen *Patesnak* lanarengatik. Gaua

biribiltzeko Vincenzo Nataliren *Cube* filme kanadiarra izango da ikusgai. Sitges 98ko Zine Fantastikoko Zinemaldian irabazlea izan zen egungo panorama zinematografikoko filme bitxi eta arraro hau. Ongarrikoek adierazi digutenez, baliteke zine munduko adituren bat edo aktore gonbidaturren bat izatea osteguneko emanaldi honetan.

# Iban Garrido

IKASLEA - 19 URTE



**1 - Merezi al du bizitza? Eta Elgoibarren bizitza?**

- Bai. Elgoibarren bizi naiz eta bertan pozik nago.

**2 - Eutanasia praktikatuko al zenuke familiako batekin?**

- Oso gaizki egongo balitz bai, baina bestela ez.

**3 - Hil eta gero?**

- Ez dut uste ezer dagoenik.

**4 - Lehenengo ni eta gero besteak.**

- Ez, alderantziz, lehenengo besteak eta ondoren ni.

**5 - Nori kontatzen dizkiozu arazoak?**

- Lagunei eta familiakoei.

**6 - Zein da zure bizitzako anbizioa? Eta bizioa?**

- Lana, neska bat eta diru asko edukitzea. Bizioa, berriz, irratizalea izatea.

**7 - Sinesten al duzu politikan?**

- Ez, batere ez. Botoa eman nuen baina inolako zentzurik gabe, pentsatu gabe alderdi bati botua eman eta kitto.

**8 - Noiz joan zinen azkenekoz manifestazio batera?**

- Ez naiz sekula manifestazio batean izan.

**9 - Euskalduna naiz eta harro nago?**

- Bai. Lagunekin gaztelaniaz hitz egiten dut beraiek euskaraz ez dakitelako, baina esaldi horrekin bat nator.

**10 - Zerk galerazten dizu loa?**

- Ezertxok ere ez, ondo egiten dut lo.

**11 - Joaten al zara Gaztetzera?**

- Ez, ez naiz joaten.

**12 - Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin?**

- Ez, ez dute sufritzen nirekin.

**13 - Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna?**

**Eta gutxien?**

- Gehien, niri entzuten badakitela. Gutxien, berriz, gauza batzuk egiten ez didatela uzten. Adibidez, ez didate autoa gidatzen lagatzen.

**14 - Laguntzen al duzu etxeko-lanetan?**

- Ez, ez dut etxeko lanik egiten.

**15 - Ondo pasa al daiteke alkoholik gabe?**

- Bai, noski.

**16 - Irakurri duzun azken liburua?**

- "Los maravillosos hombres película". Ez zait irakurtzea gustatzen, baina eskolan agindu ziguten eta irakurri egin behar izan nuen.

**17 - Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe?**

- Sexua maitasunik gabe.

**18 - Birjinitatea traba ala bertutea?**

- Bertutea dela iruditzen zait.

**19 - Homosexual batek maite zaituela esango balizu?**

- Sentitzen dudala, baina nik bera ez dudala gustuko esango nioke.

**20 - Sinesten al duzu betiko maitasunean?**

- Bai. Gustatuko litzaidake betirako maitasuna izatea.



## INTERESEKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak . . . 943 461111  
Txanda hartzeko . 943 743354  
Planning-a . . . . 943 742950  
Alkoholiko Anonimoak . 943740385  
D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622  
Gurutze Gorria . . 943 743864  
Mendaroko Ospitalea . 943 032800  
Odol Emaileak . . 943 743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak . . 943 740442  
PESA (Eibar) . . . 902 10 12 10  
Taxi geltokia . . . 943 740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua . . 943 744366  
Udal Kirol Patronatua . 943 744415  
Kultura Zerbitzua . . 943 742158  
Mendaroko Udala . . 943 756100  
Ongizate zerbitzua . . 943741008  
Udaletxea . . . . . 943 741050  
Udalzaingoa . . . 943 741394

### BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . . . 943 741626  
Kiroldegia . . . . . 943 744415  
Kontsumo Bulegoa . . 943 743088  
Liburutegia . . . . . 943 743525  
Musika Eskola . . . 943 742145  
Mintxeta . . . . . 943 744315  
Parrokia . . . . . 943 740842  
Postetxea . . . . . 943 741547  
Gaztetxea . . . . . 943 743572

### ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . 943 740296  
Zaharren Biltokia . . 943 740526

### IKASTETXEAK

Haur Eskola . . . 943 74 21 41  
HHI (EPA) . . . . 943 74 08 80  
Herri Eskola . . . 943 74 08 79  
I.M.H. . . . . . 943 74 41 32  
Herri Institutua  
Arreiturre . . . 943 74 02 67  
Ezenarro (Meka) . 943 74 80 19  
Ikastola . . . . . 943 74 44 41  
Pilar Ikastetxea . . 943 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN . . . . . 943 74 41 12  
El Diario Vasco . . . 943 74 40 73  
El Correo Español . 943 74 10 82  
Egin . . . . . 943 10 84 21  
Zazpiki Irratia . . 943 74 34 74

## 30 ostirala

**19:00 MARGO ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**

Egilea: Xabier Obeso  
Kultur Etxean  
Maiatzaren 9ra arte

**22:15 ZINEA**  
"Muertos de risa"

## 1 larunbata

**11:00 SANTA KRUTZ EGUNEKO MEZA**  
San Rokeko ermitan

**19:30-22:15 ZINEA**  
"Muertos de risa"

## 2 igandea

**7:30 MENDI TRABESIA**

Irteera Plaza Handitik  
Antolatzailea:  
Morkaiko M.E.

**10:15 ODOL EMALEEN BATZARRERA JOATEKO AUTOBUSA**  
Irteera Txankakua zubitik  
Antolatzailea: Elgoibarko  
Odol Emaleen Elkartea

**19:30-22:15 ZINEA**  
"Muertos de risa"

## 3 astelehena

**22:15 ZINEA**  
"Muertos de risa"

## 6 osteguna

**22:15 ZINE KLUBA**  
"Patesnak" laburmetrajeara  
"Cube"

## 7 ostirala

**19:00 DROGEI BURUZKO ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**  
Antolatzaileak:  
Udaleko Ongizate Saila  
Kultur Etxeko Ganbaran  
Maiatzaren 9ra arte

**22:30 MARTA CARRASCOREN DANTZA SAIOA**  
Izenburua: Blanc d'ombra  
Herriko Antzokian  
Antolatzailea: Haritz  
Euskal Dantzari Taldea

# ZINEA



**Zuzendaria: Alex de la Iglesia.**  
**Antzezleak: Santiago Segura,**  
**El Gran Wyoming, Alex Angulo.**

## Muertos de risa

Nino (Santiago Segura) eta Bruno (El Gran Wyoming) 70. hamarkadako ospe eta arrakasta handiko bi umorista dira. Zenbat eta arrakasta handiagoa izan, ordea, bien arteko gorrotoa eta jasanezina handituz joango da. 70. hamarkadako teledibista nolakoa zen erakusten du filmak, *Un, Dos, Tres, Directísimo* eta antzerako saioak gogoratuz.

● **Iparraldean mendi trabiesia maiatzaren 2ra atzeratu da**

Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta, Iparraldeko Askain, Larrun eta Sara bitartean maiatzaren 24an egin behar zuten mendi trabiesia maiatzaren 2ra atzeratu dutela adierazi digute. Izen-ematea Morkaikok Errosario kalean duen egoitzan ostiral arratsaldean edo larunbat goizean egin daiteke edo 943 74 02 97 telefonora deituz. Antolatzaileek adierazi digutenez, antolakuntzan laguntzeko komenigarria da izena garaiz ematea. Autobusa igandean, hilak 2, goizeko 7:30ean irtengo da Plaza Handitik.

● **Deba bailarako Odol Emaleen batzarra Arantzazun**

Elgoibarko Odol Emaleen Elkarteak, Deba Bailarako Odol Emaleen batzarrera joateko autobusa antolatu du maiatzaren 2an, igandea. Batzarra Arantzazun izango da eta autobusa goizeko 10:15ean irtengo da Txankakua zubitik.

● **Santa Krutz Eguneako meza San Rokeko ermitan maiatzaren 1ean**

Urtero bezala Santa Krutz Eguneako meza edo elizkizuna egingo dute San Rokeko auzotarrek bertako ermitan. Orain arte meza maiatzaren 3an izan da, baina aurren astelehena denez, hileko estreinako zapatara pasatu da ospakizuna. Hortaz, maiatzaren 1ean, zapatua, izango da meza goizeko 11:00etan.



● **Herri Urratsera joateko autobusen txartelak salgai**

Senperen maiatzaren 9an egingo den Herri Urratsera, euskararen aldeko jaira joateko autobusen txartelak, Elgoibarko Izarrak Ubitarte 4an duen egoitzan edo 943 74 16 26 telefonora deituz eskura daitezke. Elkarteko bazkide direnek 700 pezeta ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 1.000 pezeta. Mendaron, berriz, *Ormola* eta *Txirristaka* tabernetan jarriko dira txartelak salgai. Autobusak, Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak antolatu ditu, Elgoibarko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz.

**T X A N D A K**

**FARMAZIAK**

	Eguez	Gauze
1	Anduaga	Anduaga
2	Yudego*	Anduaga
3	Yudego	Yudego
4	Zabaleta	Zabaleta
5	Etxeberria	Etxeberria (Errosario kalean)
6	Escala	Escala
7	Bidasolo	Bidasolo

\* (eguerdiko 2ak arte)  
**ESCALA:** Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38  
**ANDUAGA:** Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 943 75 61 42  
**ZABALETA:** Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**  
**2 igandea** Eizagirre

**ONGARRI**  
**zine kluba**



Zuzendaria:  
 Vicenzo Natali.

**Cube**

Sitges 98ko Zine Fantastikoaren zinemaldiko irabazle nagusia izan zen zientzia fikziozko eskemen muga dabilen filme hau. Espaziontzi batean harrapatuta dauden pertsonaia batzuen bizipenak kontatzen dizkigu. Ontzia adimen handiko buru batek gidatzen du eta biziraupeneko joko batean parte hartzeraz gonbidatzen ditu bidaiariak, jokoaren helburua espaziontztik ihes egitea da.

**OHARRA:**  
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.

## Lana

### ◆ ESKAINTZA ◆

◆ Esperientziadun kamareroa eta kamarera behar dira 20-30 urte bitartekoak. Elgoibarko tabernarako. ☎ 630 61 76 11

◆ Kamarera bat behar da jatetxe batean lan egiteko. 6 hilabeterako. ☎ 943 19 24 12 (20:30etik 22:00era. Kontxi)

◆ Esperientziadun kamarero bat behar da. ☎ 943 74 36 02 (10:00-13:00/15:00-19:00)

### ◆ ESKAERA ◆

◆ Bulegoak, tabernak, kristalak... garbitzen espezializatutako neskak eskaintzen dira. ☎ 630 59 28 46

◆ Erizantzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak edo edadetuak zaintzeko. Etxean edo ospitalean. Egunez nahiz gauetz. ☎ 943 74 27 78

◆ Emakumea eskaintzen da etxeko garbitzeko. ☎ 943 74 41 70

◆ Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. 10:00etatik 16:00etara. Cristiane. ☎ 943 74 08 81-74 07 07

◆ Esperientziadun emakumea eskaintzen da gaixoak zaintzeko. Victoria edo Rosa. ☎ 943 74 04 86

◆ Etxea garbitu edo umeak zaintzeko emakumea eskaintzen da. ☎ 943 74 34 06

◆ Agureak, gaixoak, etab. zaintzeko prest nago. Arratsaldez edo gauetz. Esperientziarekin. ☎ 630 20 97 31

◆ Neska eskaintzen da. Arduratsua eta esperientziarekin, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. ☎ 610 68 52 95

◆ Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ 943 75 62 57

## Bestelakoak

◆ 75. urtean jaio eta Ikastolan ibili ginenok afaria egingo dugu, bihar, maiatzak 1, Txariduna jatetxean. Ize-na emateko Lanbroa tabernara joan.

## Etxebizitzak

◆ Pisia alokatuko nuke 8 bat hila-beterako. Ahal bada altzariekin. ☎ 943 74 09 44

◆ Pisia behar dut alokatzeko. Priesa dauka. Altzariekin. Soldata finkoa. ☎ 943 74 08 09

◆ Pisia daukat alokatzeko. Akademia edo bulegoa jartzeko aproposa. S. Frantzisko kalean, 2. pisuan. Prezio onean. ☎ 943 74 03 71 (Ana M.)

◆ Pisia saltzen da Errosario kalean. ☎ 943 74 17 95

◆ Pisu txikia edo buhardila alokatuko nuke. ☎ 943 74 23 63

◆ Apartamentua salgai altzariekin Alcoceberren (Las Fuentes urbanizazioa). Hondartzara begira ☎ 943 74 22 08 (Mari).

◆ Lokal bat alokatu nahi genuke. 20.000 pta. ordaintzeko prest gaude lokalaren arabera. ☎ 943 74 35 68 (Abraham)

◆ Buhardila bat alokatu nahi nuke. Gehienez 30.000 pta. ordaintzeko prest nago. ☎ 943 20 01 01

◆ Etxea saltzen da Santa Ana kalean. 2. pisua da, ganbara eta igogailuarekin. ☎ 943 74 03 83 943 74 18 34

## Agurrak

◆ Zorionak **Maite Torquemadari** apirilaren 27an urteak bete zituelako. Leireren, Aitorren eta Miriamen partez.

◆ Zorionak **amõii Gloriari** maitasun handiz iloba guztien partez.

◆ Zorionak **Big@ezenarro.com**. Ik\Lau\Mai\Lo15 +20.

◆ Zorionak **Arantxa San Martini** seme-alaben partez, beste urte bat gehiagorekin kargatu behar duelako.

◆ Zorionak **Joana Ruizi eta Ainhoa Isasiri** 15 urte bete dituztelako. Gelako nesken partez.

◆ Zorionak **Anttoni** maiatzaren 5ean 12 urte beteko dituelako. Ikastolako 6. mailako partez.

◆ Zorionak **Txatino!** Abenduaren 36an 17 urte bete zituelako. Ui! Erru tekniko bat! Zuk badakizu noiz. Elgoibarko DBH 2ko nesken partez. Muxu handi bat. Diablillo!

◆ Zorionak **Haritz Arrietari** aste honetan urteak bete dituelako. Ikastolako DBH 2koen partez.

◆ Zorionak **Ainhoa Doradori** bihar 11 urte beteko dituelako. Laguntxo partez.

◆ Zorionak **Jose Juradori** atzo, hilak 29, urteak bete zituelako. Emaztearen eta seme-alaben partez.

◆ Zorionak **Usoa Juradori** igandean 13 urte beteko dituelako. Etxeko partez ondo pasa eguna.

◆ Zorionak **Ion Iñakiri**, hilaren 25ean urtebete egin zuelako. Maitaneren, Gorkaren eta Oihanaren partez.


◆ Zorionak **Iosu Canalesi** hilaren 23an 8 urte bete zituelako. Lagun guztien partez.

◆ Zorionak **Xabiri** hilaren 22an 11 urte bete zituelako. Bere arreba Aneren eta gurasoen partez.

◆ Zorionak **Aneri** hilaren 22an 8 urte bete zituelako. Gelako guztien partez.




◆ Zorionak **Ion Casadori**, maiatzaren 5ean 7 urte beteko dituelako. Familiaren partez.



◆ Zorionak **Unairi**, maiatzaren 1ean urtebete egingo duela. Familiaren eta bereziki Aneren partez.



◆ Zorionak **Nora Kortaberriri**, hilaren 28an 2 urte bete zituelako. Familia osoaren partez, muxu handi bat.




◆ Zorionak **Nora Bastidari**, hilaren 29an 3 urte bete zituelako. Familia guztien partez.



◆ Herzliche Glückwünsche, **Lore!** Zer pentsatzen zenuen, urrutik egotegatik ez ginela gogoratuko? Zorionak eta

muxu bat gurasoen, Mikelen, Maitaneren eta Martinen partez.



◆ Zorionak **Joanari** apirilaren 28an urteak bete zituelako. Gurasoen partez.



◆ Zorionak **Juanitari eta Vicente**ri, maiatzaren 5ean urrezko ezteiak beteko dituztelako. Seme-alaben partez.




◆ Zorionak **Iñigo Larizi** arreba Elenaren eta familiaren partez, apirilaren 27an 16 urte bete

zituelako.

◆ Zorionak **Iraideri** hilaren 24an 2 urte bete zituelako. Familiaren partez.




◆ Zorionak **Nagoreri**, hilaren 24an 3 urte bete zituelako. Gurasoen, ahizparen eta familiaren partez.



◆ Zorionak **Ioni** hilaren 25ean urtebete egin zuelako. Gurasoen partez.



◆ Zorionak **Ion**, hilaren 28an 8 urte bete zituelako. Zure lagun, familiaren eta batez ere Aneren partez.



◆ Zorionak **Eduardo Moralesi** igandean urteak beteko dituelako. Emaztearen eta seme Ibanen partez.



◆ Zorionak **Aure eta Nekane** zuen ezkontza egunean. Zapatuan egun ederra pasa dezazuela opa dizuete familiako guztiek.

◆ Zorionak **Maialen Solabarrietari**, maiatzaren 4an 5 urte beteko dituelako, muxu handi bat familia osoaren partez. Zorionak baita ere **aitari** maiatzaren 7an urteak beteko dituelako.







# udaberriarekin batera,

# gure lokala eraberritu dugu



## bezeroei zerbitzu hobea eskaintzeko.



*Astelehenetik aurrera irekita!*

# Udako kanpaldiak

Atxutxiamakarekin

## NON:

- LIZARRAn (Nafarroan).
- Oso ingurune ona.
- Igerilekua eta ibaia.
- Txangoak egiteko aproposa.

## NORENTZAT:

Lehen Hezkuntzako 6. mailakoentzat eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoentzat.

**NOIZ:** Uztailaren 16tik 29ra.

## NOREKIN:

Elgoibarko hurrez gain, Azkoitiko, Lasarteko eta Lizarrako hurrek ere parte hartuko dute.

## MATRIKULA-EPEA:

Apirilaren 26tik maiatzaren 7ra. Elgoibarko Izarra Kultur Elkartean.

ELGOIBARKO IZARRA Ubitarte 4, behea.

Informazio gehiago: 943 74 16 26 (M<sup>a</sup> Jesus)

## MATRIKULA:

25.000 pta. (Bi zatitan ordaintzeko aukera izango da).



ANTOLATZAILEA:  
Elgoibarko Izarrako ATXUTXIAMAIA B. T.



LAGUNTZAILEAK:  
Elgoibarko Udala  
Eusko Jaurlaritza  
Gipuzkoako Foru Aldundia



# HERRIKO ANTZOKIAN

maiatzak 7, ostirala  
gaueko 22:30ean

MARTA CARRASCO

blanc d'ombra



GOGOAREN HEGALAK

KOREOGRAFIA: JOSU MUGICA

maiatzak 21, ostirala  
gaueko 22:30ean

**ESTREINALDIA!**



Udalaren Musika  
eta Dantza Fundazioa



Aldundia



Haritz  
Euskal Dantzari Taldea